

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

3/2025 Foru Agindua, urtarrilaren 8koa. Jesús María Diego Oteo, aldi baterako izendatua, Artziniegako Udaleko idazkari kontuhartzaile lanpostutik kentzea, berak hala eskatuta

Abuztuaren 14ko 476/2024 Foru Aginduaren bidez, Jesús María Diego Oteo aldi baterako izendatu zen, Artziniegako Udaleko idazkari kontuhartzaile lanpostua betetzeko.

2025eko urtarrilaren 2ko idazki baten bidez, funtzionario horrek Udalari jakinarazi zion idazkari kontuhartzaile lanpostua uzteko asmoa zuela, 2025eko urtarrilaren 6tik aurrerako ondorioekin. Alkateak Lurralde Orekaren Zuzendaritzari eman zion horren berri, eta ondorio data horrekin kargutik kentzeko eskatu zuen.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 56. artikulua ezartzen duenez, xedapen horren VI. kapituluaren aipatzen diren izendapenak egiteko eskumena duten organoek izendapena errebokatzeko eskumena ere badute. Artikulu bereko 2. apartatuak ezartzen du izendapen edo errebokatzeko horiek egiten dituen organoak dagokion idatzoharra egin behar duela aipatutako errege dekretuaren 23. artikuluan adierazten den erregistro integratuan.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren xedapen gehigarrietatik hirugarrenean xedatutakoari dagokionez, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak hamahirugarren xedapen iragankorrean agindutakoa betetzeko, Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotako eskumenak betez, eta horien indarrez dagozkidan ahalmenak baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Jesús María Diego Oteo Artziniegako Udaleko idazkari kontuhartzaile lanpostutik kentzea, berak hala eskatuta, 2025eko urtarrilaren 6tik aurrerako ondorioekin, hain zuzen, abuztuaren 14ko 476/2024 Foru Aginduari jarraituz aldi baterako izendapen bidez betetzen zuen lanpostutik.

Bigarrena. Foru agindu hau dagozkion ondorioetarako jakinaraztea Artziniegako Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Jakinarazten zaizun foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakezu zuzenean Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 8a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA